

# ttüpi-ttapa

1995eko otsailak 16 • 152. zenbakia

Elkarrizketa

**Juainas PAUL:**

**«Guzion artean erabaki behar  
dugu nola esplotatu turismoa»**



**ESKUALDEKO 'COFES'  
ZENTRUA ELIZONDON**

**MUEBLES**  
**AMETS**  
*mobleak orokorrean*

BIDASOA Karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA



- *Sukaldeak*
- *Targelak*
- *Logelak*
- *Bainugelak*
- *Pareta*  
*Armairuak*

# Marka eta modelo guztiak



**ESKU-LANA DOHAINIK**

**Olio aldaketa**

**Freno-pastillak aldatzea**

**Amortiguadoreak aldatzea**

**PEDRO GARMENDIA, S.A.**  
**RENAULT • ELIZONDO**

Frantziarako karretera 57. km. - Tfnoa.: 58043116

DATUAK

❖ *Juainas Paul Arzak, Zubietako zinegotzia da. Lanbidez historia irakaslea da Lekarozko institutuan.*

❖ *Bertizko Partzuego turistikoan Zubietako udalaren ordezkaria da.*

❖ *Bertizko Partzuego Turistikoak, Batzorde sektorialen osaketan parte hartzeko deialdia igorri dio hainbat jenderi. Sei dira aurreikusten direnak: Ingurugiroa, kultura, garapenaren kontrola, ekonomia, informazio eta jarraipena eta kalitatea. Horretaz aritu gara Juainasekin.*

TESTUA:  
JOXEMANUEL IRIGOIEN  
ARGAZKIA:  
KARMELE TOLOSA

Juainas PAUL:

# «Turismoa zonalderako zer izan den guztiok erabaki behar dugu»

## BATZORDE BERRIEN MUGAK ETA POSIBILITATEAK IKUSIRIK, ZER DERITZOKU?

Hasteko, berandu gabiltzala, estatutuak duela urte bat onartu baitziren. Bestalde, batzorde gehiegi; bost eta seigarrena nere idurian gerentziaren egitekoak dira, eta laugarrena berriz, espezializatu egia da deialdi orokor batez osatzeko. Deigarriena, dena den, deialdia bera da, eskribuaren erakargarritasun ahula, 'irudian' jakintsua den enpresa batek prestatua izateko, alegia. Batzorde hauen mugak, eztabaida guztiak soilak direla eta administrazio kontseilutik pasa beharra asanblea orokorrara ailegatzeko, hain zuzen, Partzuegoko batzar batek jarriak dira.

## GUZTI HORI IKUSITA, PARTE HARTZEA AHOLKATZEN DUZU?

Dudarik gabe, aferra hor baitago. Berandu gabiltzala esan badut eztabaida eta definizioa beharrezkotzat jotzen dudalako da. Dagoeneko aurreratuagoak egon behar genuela uste dut. Egin direnak egin direlarik, oinarri gabezi horren gainetik egin baitira. Zer da kulturaren babesa? ondatsun naturalena? ingu-



rugiroaren gordeketa? Nola bideratu turismoa horrekin batera? Kezka duten guztiok parte hartu behar dute, pasibotasunak ez du zentzurik!

## ARAZO HOREK, DENA DEN, EZ DUTE PARTZUEGOAN BAKARRIK TOKIA ETA, BERTZALDE, UDALEK ORDEZKARITZA DUTE BERTAN. EURERI EZ LEGOKIE?

Partzuegoa ekintzetan amildu zen hasieratik, eztabaidak horrelako zirrara sortarazten zion nere ikuspuntutik. Bi urte dira Zubietako udalak gerentziari eta beste udal guztiari eztabaida proposatu ziela. Inork ez zuen erantzun eta guk ez genuen jakin nola segi. Bertan behera geratu zen. Bada, bestalde, udalen ordezkari eta parte hartzeari buruz zerresan ugari. Halere, horrek ez du akitutzat emanen gurea. Are gehiago, tu-

rismoa zonalderako zer izan behar den guztiok erabaki beharko genuke, zein garapen kulturala edo zein bizimodu landu nahi dugun, eta hori oraingo ordezkari eta sistemarekin ez da lortzen ahal. Horregatik bada, parte hartzearen garrantzia. Orain, dituen akatsak dituelarik, hemen dugu beste aukera. Eta aukerei uko egiten zaienean, ez du balio gero gibeletik aritzea. Hark esan zuena, "orain ixiltzen dena, ixil dadila betiko".

► *"Partzuegoaren edozein ekintzen azpitik, bertako eta turismoarekiko filosofia dago, kontsentsuatu ez dena. Hori egitea dagokie batzordeei."*

# FAMILIA ORIENTABIDE ETA SEXU HEZIKETARAKO ZENTRUA ELIZONDON PARATUKO DUTE

**Azken bi urteotan egindako eskaerek erantzuna izan dute eta Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentru bat (COFES) paratuko da azkenean inguru honetan. Modu honetara, badirudi akituko dela horretarako Iruñera joan beharra. Halere, afera honetan gehien mugitu den Malerreka 'Behinpin' taldeak zentrua Donezteben jartzea eskatzen zuen, eskualdeko erdigunea delakoan.**

TESTUA:  
AITOR AROZENA  
ARGAZKIAK:  
KARMELE TOLOSA

**G**inekologo bat eta gizarte laguntzaile bat lanean hasiko dira martxotik aitzinera Elizondoko Osasun Zentroan. Oraindik ez dago garbi ordea,

Elizondon bakarrak arituko diren edo egun ezberdinetan, Tafalla eta Altsasuko Osasun Zentroetan ere ibili beharko duten.

Begoña Alberro, Malerreka-k Gizarte Laguntzaileak ongi ikusten du zerbitzu hau Iruñetik deszentralizatu eta Nafarroa osoan zabaltzea. Halere, 'Behinpin' taldeko

kide bezala Donezteben jartzea egokiagoa litzatekeela uste du, "eskualdea bere osotasunean, Beratik Zugarramurdiraino eta Ezkurra edo Saldias bezalako herriak kontuan hartuz, erdialdean dagoelako, geografikoki punta batean gelditzen den Elizondo baino zentrikoagoa, argi eta garbi". Osasunbideak bere aldetik, beti azaldu du eskualderako Famili Planifikazio eta Sexu Heziketarako zentroa Elizondon jartzeko asmoa, bertako Osasun Zentroan leku gehiago dagoelako eta ginekologo batendako bulegoa lehendik prestatua baitago.

## MOBILIZAZIOAK AZKEN BI URTEAN

Orain arte Iruñera joan behar zuten eskualdeko jendeak honelako zerbitzua jaso nahi izanez gero eta, kilometroez gain, zenbaitzutan 4.000 pertsonatik goiti topatzen zituzten txanda hartzeko esperoan. 'Behinpin' taldearen izenean Elgorriagako Arrosatxo Ibarrek bere garaian erran zuten bezala, "bertako emakumeak kontsulta pribatuetara jo beharrean aurkitzen dira auzitan, eta ondorioz, osasun atentziorri dagokionez, legeak nafartar guztioi aitortzen digun berdintasun eskubidea ez da inola ere betetzen". Hau dela eta, 'Behinpin' taldeak pare bat urte daramazki COFES zentrua Doneztebera ekartzea eskatuz, zo-

«Zerbitzua jartzea ongi dago, baina ez gaude ados gauzak egiteko manierarekin eta Elizondon kokatzearekin»



**Begoña ALBERRO**

'Behinpin' taldekidea

Duela urte terdi Malerreka-k Behinpin Taldearen barrenean, zerbitzu komisia sortu zen. Komisia honek gure eskualdean zeintzuk diren beharrezko zerbitzuak aztertu zuen.

Gure zonaldeko beharrak ikusita, premia haundiagoa zutenetatik hasia erabaki genuen. Eskualdean falta dugun behar-beharrezko zerbitzu horietako bat Familia Orientabidea eta Sexu Heziketa Zentruena da.

Eta zerbitzu hau paratzeko harat eta honat mugitzen hasi ginen: talde bilerak, elkarrizketak politikoekin,

udalei dirulaguntzak eta Familia Orientabiderako eta Sexu Heziketarako Zentrua paratzearen aldeko mozioak egiteko eskaerak, eta berrikiago, zonalde honetako Osasunbideako ordezkariekin bildu ginen. Azkenean, guk lan guztia egin ondotik eta gurekin kontaktu gabe, Bortzirriak, baztan eta Malerreka-k jende guzientzat den zerbitzua Elizondon kokatzea erabaki dute. Zerbitzua jartzea ongi dago, baina ez gaude ados bi gauzetan: Nola egin diren gauzak eta non jarri den zerbitzua.

## ZUK ZER DIOZU?



**Marta ETXEGIA**  
Donamariakoa

Honelako zentru bat egiteko asmoa zegoela banekien, baina Donezteben paratuko zutela uste nuen. Ni Donezteben egitearen aldekoa naiz, bai guretzat baita bertzeentzat ere (Bortzirietakoak, adibidez) hurbilago gelditzen delako. Onena ahalik eta herri gehienetan izatea litzateke, baina posible ez denez hurbiltasun geografikoari begiratu behar zaio. Orain, beharrezkoa ikusten dut bederen Iruñetik mugitzea, hemengo jendea kolgatua eta informaziorik gabe gelditzen baikara.



**Karmele IGUSKIZA**  
Amaiurkoa

Ez nuen deus aditua, ez Doneztebera ezta Elizondora ekarri nahi zutenik honelako zentru bat. Edozein tokira ekartzea positiboak iduritzen zait, kuestioa hemen izatea da Iruñerat gabe. Lesaka aldeko jendearentzat eta hobe izanen zen Donezteben, baina hauentzat ere ez da gauza bera Elizondora edo Iruñerat mugitzea. Zerbitzuak demanda handia izanen duela uste dut. Lehenbizi, gauza berria denez, jendea lotsatu egingen da, baina gero gauza normala eta beharrezkoa dela ikusiko du.



**Jeannie TELLETXEA**  
Lesakakoa

COFES zentruak alderdi honetara ere ekartzeko bileraren bat egon dela banekien, baina ez nekien Elizondon paratu behar zutela. Ongi iruditzen zait, jendearentzat aunitzez komodoagoa baita. Noski, guretzat Donezteben jarzea hobe izanen zen. Logikoagoa ikusten dut, mapa bat ikusiz gero Nafarroako iparraldearen erdigunea Malerreka baita. Azken finean, gai honetan ere institutuaren gaiarekin bezala gertatzen zaigu, denak Baztan aldera mugitu behar dugula, alegia.

naldeak falta duen premiazko zerbitzua delakoan. Asmo honekin eskualdeko udalera jo zuten laguntza eske. Udal gehienetan, Baztangoan barne, bat egin zuten "Behinpin" en proposamenarekin, zenbaitzuk dirulaguntza ekonomikoa ere eman zuten eta bertze batzuk, Lesakako udalaren kasuan bezala, zerbitzu hau egun ezberdinetan zonaldeko hiru osasun zentroetan ematearen alde agertu ziren. Osasunbidearekin biltzeko orduan ere, taldeko hiru ordezkariarekin batera eskualdeko hiru alkate joan ziren, nahiz eta emaitzak uste bezain onak ez izan.

Begoña Alberroren erraetan, "behingoz zerbait lortu da, Elizondon zerbait jarri dute. Baina, beti ere, hainbertze mugitu ondotik guri ez digute ezta kasurik egin, ez dute gurekin kontatu".

### ELIZONDON ZERGATIK?

Osasunbideak COFES-a Elizondon jartzeko asmoa zuen lehendik. "Baina ez dakigu -dio 'Behinpin' eko ordezkariak- zergatik jarri duten orain, lehendik pentsatua zutelako edo hauteskundeak segituan heldu direlako. Azkenean nahi zutena egin dute eta guri ez digute zer

pentsatzen genuen galdetu". Halere, Baztango udala inguruko haundiena da eta "populazioaren gorabeherak ere kontuan hartu izanen dituzte". Nolanahi ere, 'Behinpin' taldeak azken urteotan egingadako lana positiboki baloratu behar da Begoñaren erra-

netan: "Malerreka, Tafalla eta Altsasuko taldeak ez baginen mugitu, seguraski ez zen deus egin izanen, ez zuten deus paratu izanen. Ez dakit zenbat urte gehiago pasatuko ziren honelako zentru bat jartzeko". Martxan hasiko da behinpin. ■

### Zer eskeintzen du COFES honek?

**Bertzeak bertze honako zerbitzu hauek eskeinitiko dira:**

- Atentzio berezia emakumeentzat minbizia eta bertze gaixotasunak guttitzeko.
- Gogoko haurdunaldien kopurua gehitzea eta gogoz kontrakoak guttitzea.
- Inguru honetan haurdun dauden emakumeen kontrol ginekologikoa.
- Antisorgailu metodoen inguruko informazioa eta emakumezko zein gizonezkoen antzutasun metodoen informazioa.
- Programa berezitua 22 urtez behitikoentzat, kontsulta-ordu eta errekurtsio bereziekin informazio eta orientabide mailan.
- Heziketa programa antziz-nera ateratzeko, eskola, elkarte eta institutuaren arteko koordinazioa.



MARTXOTIK AITZINERA, GINEKOLOGO ETA GIZARTE LAGUNTZAILE BATEK EMANEN DUTE ELIZONDON SEXU HEZIKETA ETA FAMILI PLANIFIKAZIARI BURUZKO INFORMAZIOA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.950 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXeko PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Irigoien.

**Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea.

**Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria, Arantxa Zabala...

**Inprimategia:** Gertu (Oñati).

**ttipi-ttapa** ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.

**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea...



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

## GAURKOTASUNeko GAIA

### Mario Conde: 3.000 milioi pezetatan libre

#### Printzipio beraren aurrean bide ezberdinak segitzen ditu Justiziak



M<sup>o</sup> Jesus SOTA  
Lesakako irakaslea

Orain arte jainko eta eredu agertzen zirenak erortzen ari dira hautsa bezala eta Mario Conderi ere txanda ailegatu zaio. Baina era berezian, ez jende arruntari gertatzen zaion moduan. Berak ere interes handia jarri zuen bere berezitasuna nabarmentzeko, 500.000 pta. kartzelara eramanez. Kostituzioak lege eta justiziaren aurrean denak berdinak garela erraten du, errealitateak ordea, bertze gauza bat adierazten digu. XVI. mendean Quevedok olerki batean zioen bezala, "Poderoso caballero es Don dinero". Nahiz eta urteak pasatu baliogarria da gaur egun. Legea kontuan hartuta, ongi egina dago Mario Conderen prozesua, baina zer gertatzen da dirua ez dutenekin? Preso asko denbora luzez egoten dira kartzelan bere baldintzapeko askatasuna edo abokatu bat ordaintzeko dirurik ez dutelako. Beraz, diruak boterea du printzipio berberaren aurrean Justiziak bide ezberdinak jarraitzeko. Eta ez ote da hori tratu diskriminatorioa? Zer da alarma soziala sortzea?

#### Alarma sozial gehiago sortzen du Condek lapur tikiak baino



Jesus ETXART  
Legasako bulegaria

Ez nau batere harritzen Conde eta Romaní libre uzteak, beraiek jakinen dute zein ondorioekin sartu ziren eta atera ere. Justizia diruonekin hobeki portatzen da noski, baina ez al da justizia dirudunen eskutan? Dirua duenak fidantza ordainduz libratzea eta pobrea kartzelan egon behar izatea, diru hori pagatu ezin duelako, diskriminatorioa da, dudarik gabe, baina okerrena hala segituko duela beti. 'Alarma sozialik' sortzen ez duelako libratu omen dute. Nerretzat ordea, alarma sozial tikiagoa sortzen dute egunero zigortzen dituzten lapur tikiak, Condek baino. Horrek bai sortzen duela alarma soziala gizarte osoarengan. Bertze aldetik, jakin behar litzateke zergatik Mario Condek egindako estafak zigortzen diren eta bertze hainbat bankero eta dirudunek bere egunerokoan egiten duenagatik ez dira zigortzen. Nork neurtzen du Justizia?

#### Ez al da, azken finean, dena diruarekin erosten?



Goizalde URDANPILETA  
Xorroxin Irratia

Soltxaga, Estatu Ekonomi Ministroak kzioenez "Espainia azkar aberas-teko herrialdea da" eta horren lekuko Mario Conde bera dugu. Ezerezetik milaka milioiak izatera pasatu da. Baina norena ote da berak pilatutako diru guztia? Tamalgarria iruditu zitzaidan egunkarian irakurtzen nuenean kartzelan Condek bertze edozeinek bezalako gela zuela eta ez zuela inongo fabore berezirik jasotzen. Lotsagarria ikusten dut auzi guzti hau, zeren eta 2.000 milioi pezeta ordainduz gero kartzelatik ateratzeko aukera baitzuen. Horretarako eduki egin behar dira 2.000 milioiak, eta alegia, Conde jaunak badiu. Eta zenbat gehiago? Ez al dira lotsagarri geratu Alcala-Mecoko beste preso guztiak? Ez al da azken finean dena diruarekin erosten?

## Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herrrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • © 63 11 88

## BOTA BERTSOA

## IRAKURLEAK MINTZO

## Iñauteriak

## Ana ETXEGARAI

Bortziritako Bertso Eskola  
Neurria: Zortziko Haundia



*Lehen lehenik erran behar dut  
dela hain ohitura zaharra  
egun hauetan festa eginez  
aurpegian irribarra  
zalduna edo printzesa ere  
izan naiteke izarra  
bi egunetan ezezagun naiz  
eta hori ez da txarra..*

*Zakozar eta ere bai mairuz  
alaitasunaz beteta  
jantzi dotore eta berritan  
jarriaz gure arreta  
animo haurra, zahar ta gaztea  
egin behar dugu besta  
mozorroturik izan nahi gendun  
bezalakoak gaude ta.*

'Bailara Lasaiak'  
zaborrez beteak  
daude

Gizarteari gero eta zerbitzu gehiago eskeintzen omen zaizkio. Errate baterako, han eta hemen zaborrak eta hondakinak biltzeko Mankomunidadeak antolatuta dira, eta itxura denez, zentzu horretan zer bait aurreratu da azken urteotan. Dena dela, argi dago oraindik orain hutsune ikaragarriak daudela garbiketa-zerbitzuari dagokionez. Gure herri bazterrek, eta baita mendiak ere, zabortegi inkontrolatuz bete beteak daude. Egia erran, Bidasoaren bazterretik dabilen nornahik hortzen du begibistan 'Bailara Lasai' hauen ikuspegirik 'ekologikoena'; erreka bazterrek Zabortzegi Haundi baten itxura oso-osoaz jantziak. Adarretatik zintzilik milaka plastiko eta zabor daude. Endarlatsa aldean, aspaldiko urteotan hantxa dago auto bat erreka bazterrean. Eta itxura denez, ez Nafarroako Gobernuak eta ezta bertako udalek ere, ez dute interes handirik jartzen arazo honi erremedioren bat jartzeko. Bertziko Partzuergo Turistikoko arduradunei kezka haundia-

goa sortzen die gure baserri inguruetako behi-kakak erreka zikin eta zabortegi inkontrolatuek baino. Axolagabekeria orokorra bihurtu da.

Hori bai; zergak eta kontribuzioak kobratzerakoan, egiaz europarrak bihurtu gara.

D. ETXEBERRIA  
DONEZTEBE



## Txoriaren ezetza

Supituki / Udazkenaren azal marroiatik, / mehatxuka orbelaren azpitik / sugetzarrak / bere buru triangeluarra altxatu zuen, / begirada bortitza, milaka orratz ziztada, / eta txoria izutu zen, / ironiaz, harro, / narraitiak dantzan egin zezala agindu zion, / etsaiaren begiei so zegoelarik / hegoak iharrausi zituen izua uxatu nahian, / geroxeago... / "guztiori gerta dakiguke" esanez, / zenbait animalia hurreratzen hasi ziren, / bapatean, berriro / luzanga berdea mehatxuka hasi zen, / "datorrena datorrela" / eta txoria intsumiso bilakatu zen.

JOSE JABIER ELIZALDE  
IARREGI



## Plastikorik ez!

Plastikoaren munduan bizigara, begiratu zure etxea eta konturatuko zara zenbat plastikozko ontzi dituzun. Jakina da erreziklatzeko zaila dela eta urtetan egoten dela ezin desegin. Beraz, interesgarria da plastiko gutxiago kontsumitzea mesedegarria dela Lurraentzat.

Adibidez, erosketak egiteko joaten zarenean, gure amak erabiltzen zuen saskia, kapazoa edo behin baino gehiagotan erabiltzen den boltsa bat eramanez, bestela, dendariari papezko boltsa eskatuz. Dendariak bezeroa serbitzeko daude eta jendeak eskatzen baldin badu, ekarriko dituzte.

Beste adibide bat: lehungarriak edo suabizanteak bi modutara aurkitzen dira merkatuan: plastiko-ontzietan edo kartoizkoetan. Hobe kartoizkoak aukeratzeari.

Honela, mila adibide daude. Erabili zure imaginazioa eta utzi plastikoa kontsumitzetik.

MIREN AGESTA



**ETXANDI  
TXOKO**  
erretegia

Bazkari, afari eta  
gosariak

**ITUREN**  
Tfnoa: 45 04 91



**ANSONEA**  
JATETXEA

*Kontsultatu menu bereziak*

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**

**GRUPO  
ZURICH**



**A SEGURO  
OROKORRAK**  
Itzea, 4 — BERA  
© 63 07 63



ARDATZA 95-I-27

Mikel Petreina, Nafarroako EHNEko lehendakariak Espainiako erregearekin elkarrizketatzeko aukera izan zuen urtarrilaren 19an, COAGeko ordezkari bezala. Nekazal sektoreko erakunde estatal bat Zarzuelako jauregian egoten den lehen aldia da.

ARDATZA 95-I-27

«Urteroko aldaketak dira gure arazo nagusia: Lanagatik edo

bertze arazoak medio, batzuk taldea utzi beharra izaten dute».

**Agustin ZUBIETA**  
Lesakako sokatiralaria  
EGIN 95-I-30

«Hemen Ameriketara inork ez zuen bertsotan egiten. Arditan ginela biltzen ginen Euskal Etxean Idahon eta, han, afaldu eta hasi nintzen bertsotan. Ez nuen lagunik, bakarrik beti».

**Jesus GOÑI**  
Oronoziarra EEBBtan  
EGUNKARIA 95-II-3

◆ **'Goenkale' ikusten duzu?**

❖ Batzutan.  
◆ **Lesakan 'Goenkale'ko M<sup>a</sup> Luisa aunitzik bada?**

❖ Bai, pertsonai hori arras hedatua dago Euskal Herrian.

◆ **Zein TB kate ikusten duzu gehien?**

❖ ETB-1

◆ **Emakumeak gona motzekin edo luzearekin?**

❖ Motzekin.

◆ **Gizonak ongi jantzita edo edozein modutan?**

❖ Bietara; lekuak, giroak eta egoerak agintzen duen modura.

◆ **Lodiak edo meheak?**

❖ Meheak. Hobe da osasunarentzat.

◆ **Etxean laguntzen duzu?**

❖ Behar nukeena baino guttiago.

◆ **Zein da gustoen prestatzen duzun platera?**

❖ Bakar bat ere ez.

◆ **Inauterietan edozein trapurekin edo mozorro prestatu batekin?**

❖ Edozein trapu zaharrekin.

◆ **Pavarotti edo Carreras?**

❖ Pavarotti motelagoa da.

◆ **Musika enlatatua edo zuzeneko emanaldia?**

❖ Zuzeneko gehiago bizitzen dut.



**Gabi IGARTZABAL**  
Lesakako langilea

© 631076 • BERA

**BOTXO ostatua**  
Tfnoa: 63 00 52  
Zalain Auzoa, BERA

Zalain Auzoa  
© 63 09 67  
BERA

**Boda eta banketeak ematen dira**

**OKANE**  
**HARATEGIA • URDAITEGIA**  
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

- ZOUK
- REGAE
- MBQANGA
- AFROJAZZ
- SOUKOUS
- AXE BAHIA
- ROCK





# Kaldereroak larunbat honetan ailegatuko dira

Hungariar kuadrilak inauteriak bertan direla anuntziatuko dute

KRISTINA BOAN

Kaldereroak eta Inñude eta Artzaiak izanen dira 'zingar arraultze' rekin batera aurten ere errepikatuko diren ekitaldiak.

Kaldereroak izanen dira aurtengo inauteriak ailegatu direla anuntziatuko dutenak, larunbat honetan. Arratsaldeko 7etan ateriko dira Illekueta auzotik gurdiak eta hainbat gizon eta andre zartagiak joz. Euskaraz, erdaraz eta hungarieraz kantatu ondotik, baratxuri zopa janen dute Herriko Etxeko plazan.

Otsailaren 23an ateriko dira hiru ikaste-txeetako umeak "Inñude eta Artzaiak" dantzatzera. Igandean, otsailak 26, nagusiak ateriko dira goizeko 10etatik aitzinera musika soinuak, konpartsa eta guzi. Karrikaz karrika ibiliko dira dantzan eguerdiko biak arte.

Astelehenean, Inñauterietako egun nagusi-



Inñudeek 'niniak' airean ibiliko dituzte aurten ere Nafarroako Inauteriak

an, goiz-goizetik koa-drilak mozorroak jan-tzita "zingar-arraultze" eskean arituko dira. Eguerdian bazkaltzera bilduko dira eta arratsaldean, zazpiak inguruan, berriz ere Altzatera ateriko dira euren mozorro eta karrozak erakustera. Nahi duenak, Udalak antolatutako mozorro lehiaketan parte hartu ahal izanen du.

## Tobi Ruiz intsumisosa kartzelan

22 urteko beratar hau otsaila hasieratik kartzeleratua eramaki du. Intsumisosa izanik orain dela hilabete batzuk epaitua izan zen eta bi urtetako kartzela zigorra ezarri zioten.

Orain, Iruñeko kartzelan dago bertze nafar intsumisoekin batera. Hala ere, hiruga-

rren graduan ezartzea espero du eta horrela kanpora ateri ahal izanen da, lana egin eta ilunabarrean espetxera bueltatu beharko du lo egitera.

Egoera hau salatze-ko eta bere egoeraz jakinarean gainean egote-ko bilerak egin izan dira.

## ttipi-flash

### Inñude eta Artzaiak

Entsaioak hiru egunetan izanen dira. Lehendabiziko aldiz ateratzen direnek eta dantza ikasi behar dutenek otsailaren 22 eta 23an ikasiko dute frontoian, arratseko 8etatik aitzinera. Bertze urtetan ateri direnak, 24an agertzea nahikoa dute. Konpartsan ateri nahi duenak ere apuntatu beharko du.

### Mendi bizikleta laisterketa

Otsailaren 19an ospatuko da seigarren edizioa. Bertze urtetan baino beranduago bada ere, Gure Txokoak ez du bere urteroko zita ahantzi. Bi ibilaldi prestatu dira, 18 eta 28 kilometrokoa. Irteera goizeko 10etarako dago anuntziatua eta 8,30etatik 9,30etara eman behar da izena. 14 eta 16 urte bitartekoek 500 pza. eta 16tik goitikoek 1.000 ordaindu beharko dute. Ondotik hameketakoa eman eta kirol materiala zozketatuko da.

**LOZOTEGI - JAIZONE**

Itzea 3 • 630786 • BERA

**ZIZKA OSTATUA**

Martxa eta mozkor saltsa  
Altzate 28 • BERA

16. orrian  
*'Giltzaren Bila'*  
lehiaketaren  
kupoia

**SAROBE**  
okindegia

**SANDERS Pentasak**  
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

**JOSEMA RAMOS**  
Zolak akutxilatuta eta  
barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA

**Lesaka**

# Iñauterietako giroan murgiltzeko prest

Igandeko zako-zaharrak eta asteleheneko karrozen desfilea ekitaldirik aipagarrienak

**AITOR AROZENA**

Larunbat gauean (otsailak 25) ikusiko dira lehen mozorroak. Hasiera ofiziala, hale-re, igandean emanen zaie iñauteriei. Mozorroekin batera arratseko zako-zaharren irteeraren esperoan egonen dira begi guztiak. Herrian barna ibili ondotik, plazan emanen dituzte azken pausuak. Ondotik, belar idor eta hautsaren besta izanen dute neska-mutikoek. Astelehen goizean, ohitura bihurtu den karrozen desfilea eta arratsaldean Beti Gazte elkarteak antolatutako mozorro lehiaketa izanen dira. Baserri auzoetako gazte kuadrillek berriz, egun batez luzatuko dute besta. Astearte goizean, Goitarrak, Nabaztarrak eta Fraindarrak eskean arituko dira auzoetan eta arratsaldean herrian barna ibiliko dira, akordeoi, trikitixa eta kriskitinen musikaren laguntzaz.



Asteartean Nabazar, Fraindar eta Goitarren txanda izanen da. Baserri auzoetako gazteek egun batez luzatuko dute besta Nafarroako Ihauleriak

## 90 milioiko dirulaguntza adinekoen etxebizitzendako

Adintuendako bakeseko etxebizitzak edo pisu tutelatuak egiteko 90,8 milioi pezetako dirulaguntza jasoko du udalak Nafarroako Gobernutik. Lanen aurrekontua 99,9 milioi pezetakoa da. Pisu

hauek, elkar bizitzarako zona bat izanen dute, "adintuen bizi maila ahalik eta gehien hobetzeko" alkateak eta Ricardo de Leon, Ongizate eta Etxebizitzen kontseilariak sinatutako idatzia araberak.

## Hitzaldia

Irain eskolak ikasurte honetarako antolatutuen ekitaldiekin segituz, Iñaki Arrizabalaga Osasun Zentroko psikologoak hitzaldia emanen du. Haurren garapenari buruzko solasaldia otsailaren 21an arratsaldeko 5etan izanen da eskolan bertan.

*ttipi-flash*

### ❖ Ezpatadantzari taldeak

Antena-3 telebistako 'El gran juego de la Oca' programan parte hartu zuen joan den asteko larunbatean, beraien dantzak eskainiz.

### ❖ Korrika-9

dela eta bertso afaria ospatuko da Koxkontan martxoaren 10ean (ortziralak) gaueko 9etan. Peñagarikano, Amuriza, Iturriaga eta E. Arozena arituko dira eta sarrera 2.500 pezetakoa izanen da.

### ❖ Euskal Ihauleriak

izeneko diapositiba emanaldia eskeinitiko du Josu Txuekak Matxinbeltzean hilaren 23an, arratsaldeko 7etan. Ortzegun honetan (16) berriz, Andoni Egañak bertsoari-tzaz solastuko du.

### ❖ Ia 12 milioi

utzi ditu 'Loteria Primitiva' jokoak herrian. Diru hori Juan Ignacio Etxepare, Manuel Etxeberria eta Andoni Zamoranoren artean banatuko dute.

**BEREAU**

HOTELA\*

- 11 logela bere bainuarekin
  - 7 dobleak
  - 4 matrimoniokoak
- Berogailua, TB, Tfnoa., Musika



### IREKITZEKO ESKAINTZA

Ortziral, larunbat, igandea eta egun bateko afaria: Bikoteko **15.000** pezeta

BEREAU etxea • Frain A<sup>a</sup>  
31770 LESAKA (Nafarroa)  
Tfnoa: 627509 - 637382  
Faxa: 627647

**EDARIAK**



**MANUEL TABERNA S.L.**

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA  
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

**ETXALAR**

# Haur eta jubilatuek ari dira iñauteak prestatzen

Momentuz gazteak dira mugimendurik ttikiena ageri dutena

*Personaia*



Juan ZELAIETA  
Juantximonea

- 90 urtetan hor ikusten zaitugu egunero ibiltzen. Zergatik ibiltzen zara hainbertze? Erreinak ez dit bertzerik erraiten: ibili, ibili. Eta arrazoa du. Ez banitz ibili izan, honez gero nere belaunak eta zangoak mugimendurik gabe zeuden.
- Duela urte batzuk pentsatzen zenuen pasitan ibiliko zine-la? Ez, señoritoen gauza zen lehen hori. Gaur medikuek ere agintzen dute ibiltzea, eta osasunerako ona da.



Argazkian ageri den Aldabeko Joseba Santestebanek bi basurde ehizatu ditu negu honetan.

## JUBILATUAK ERE BAI

Ttikia jo ta ke ari badira ere, adinean aitzineratuek ez dute ilusioa galdu; behar bada, ilusio berritzen ari zaie. Jakin baitugu, iaz baino gehiago oraindik prestatzen ari direla. Ikusiko da. Ezuste eta sorpresari bere le-

kua utzi behar zaio.

## ETA GAZTEAK?

Ez dakigu. Momentuz, mugimendu ttikiena beraien artean sumatzen da. Baina, azken momentuan nola edo hala agertuko direla dudarik ez. Iñaute egunean ikusiko da, ba.

## Suhiltzaileekin

Eskolaurrekoak Oronozko parkean egon ziren otsailaren 9an. Su-itzaltzeko tresneria ikusi, nola erabiltzen diren, eurek ere ura eta aparra erabili-jostatzen. Horrela eman zuten goiza Arantza eta Igantziko haurrekin.

PELLO ETA ALBERTO

Badakigu haurrak 'Urtzain Gizen' edo Ortzegun Gizen egunerako antzerkiak eta mozorroak prestatzen ari direla. Hau izaten da aspaldiko urteetan banaz-bertze ongien prestatutako eguna. Lana ere egiten dute azkarki eskolan eta etxean. Herritarren erantzuna da, behar bada, sobera ona ez dena, ez baita jendea ikustera ateratzen prestakuntzaren arabera. Aurten ere, ohitura bezela, auzoz auzo ibiliko dira, bakoitzean antzerki bat eginez; ondarrekoa, berriz, plazan. Hori, eguraldiak lagunduz gero. Bertzela, plazan eginen litzateke dena.

**IRU BIDE**  
ERRETEGIA

Tfnoa: 637127  
**LESAKA**

**LANCHAS**

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305

LORA DENDA

**TXIRULA**  
Bitria LESAKA  
☎ 627542

bitxikeriak • opariak • eskulangintza

**LEGARRA**

Legarrea, 9 • ☎ 63 70 30 • LESAKA

**ESKAINTZAK** Martxoaren 31 bitarte baliagarriak dira

• 'Paper Mate' boligrafoak	165 Pta.	142 Pta.
• 'Imedio' pegamentoa	135 Pta.	115 Pta.
• 'Parker' boligrafo errekanb.	355 Pta.	320 Pta.
• Diskete-kaxa giltzaduna	1.125 Pta.	795 Pta.
• Telefono listina	950 Pta.	725 Pta.
• 'Instant' pegamento solidoa	195 Pta.	95 Pta.
• 'Paper Mate' errotuladorea	455 Pta.	137 Pta.
• 3.5" HD disketeak - 3M	240 Pta.	147 Pta.
• 'Pilot B-Ball' errotuladorea	255 Pta.	225 Pta.
• 'Noris 0.5' portaminak	165 Pta.	122 Pta.
• 'Fastener' dossier karpetak	85 Pta.	62 Pta.

**HARITZE**

**JATETXEA**

KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK  
Sukaldaritzarik boberena xokorik politenean

GurutzeEtxea - Jauregieta auzoa - ☎ 635038

• ETXALAR (NAFARROA) •

**Igantzi**

# 9 milioi pezeta gostako da Berrizaungo telebista sare berria

Iribarregoborda, Zeruneta eta Gaikola kable-sare honetik kanpo utzi dituzte

OSKAR TXOPERENA

## Taxista berria

Taxista berria izanen dugu abudo, orain arte Luziano Seinen eskuetan zegoen taxi-plaza Manuel Gutierrezek erabiliko baitu hemendik aitzinera. Hala eskatu zioten udalari eta honek baimena ere eman zien.

## Erretoraren idatzia

Igantzi erretorak, zuhaitzak ez botatzeko erabakia berriro azter dezan eskatu zion udalari gutun gogor baten bitartez. Udalak, halere, lehen onartutakoarekin aitzinera segitzea erabaki zuen.

## Sasi erretzea

Norbaitek mendiko sasi edo oteak erre nahi



Nafarroako Gobernuak Berrizaunten telebista behar den bezala ikusteko dauden arazoak behin betiko moldatzeko erabakia hartu du. Abudo kablez egindako sarea zabalduko du auzoan, seinalea Larritz ingurutik hartuta. 9 milioi inguru gostako da egitea. Halere, baditu honek ere bere alde txarrak, Gaikola, Zeruneta eta Iribarregoborda kanpoan utzi dituztelako urruntasunagatik eta, ETBren seinalea Nafarroako Gobernuak zabalteko erabakia hartzen ez duen bitartean behinpein, sare honen bitartez zabalduko ez delako.

baditu aitzinetik uda-lean eskatu beharko du, beti ere Nafarroako Gobernuko mendi sailak eman beharko baitu baimena.

## Eskola atareko atakak giltzatuak

Eskola atareko atakak giltzatuak egonen dira hemendik aitzinera goizeko 9etatik arratsaldeko 8ak arte. Orain arte zeuden bezala errespetatzen ez zirela ikusita, erremediorik onena giltzatzea dela pentsatu da.

Eskola alde batera utzi gabe, erranen dugu Ortzegun Gizen bezperan eskolako haurrek karrikapasa egingen dutela herrian barna mozorrotuta.

Arg.: Artxiboa

**Deñe**

LENTZERIA  
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESAKA

Moble eta tresna zaharrak erosten ditugu. Ez du inporta zein egoeratan. Joan-etorria ez dugu kobratzen.

**BAGAGE**

Tfnoa eta Faxe: 943-610193

IRUN



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26

LESAKA

koxkonta



Sagardotegia  
zabalik

Deitu  
ereserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA



**HERRIKO  
OSTATUA**

**Jatetxea**

Urte berriarekin batera  
indarberrituak

Kuadrila, elkarte

etabarrentzat... menu


bereziak prestatzen dira

© 635290

ETXALAR

# Iñauterietan umore eta giro ona izan ziren nagusi

Bertzalde, aitzineko asteburuan estankotik ebatsi zuten eta pintadak agertu ziren egun berean



Mozorro xuriak etxe ibili ziren eskean, beraien dantza eta soinuak eskeiniz bidenabar.

Nafarroako Ihauteiak

## GARBIÑE ETA ELIXABET

Aurtengo ñauterieri adio erran diegu. Giroa eta umore ona nagusitu direla erran behar eta eguraldiak ere dexte lagundu du. Joan den urtean elurra eta

aurten haizegoa, alajaina! Mozorroak, ohitura denez, baserri eta herrian barna ibili ziren. Larunbat gauean berriz, hainbat disfraz eta kanpotar ikusi genituen.

## Ebasketak

Aurreko asteburuan ebasketak nabarmendu zaizkigu. Larunbat gauean Berganea estankotan diru pila bat eta tabako horia ere lapurtu zuten. Gau be-

rean frontoian apezaren kontrako pintadak agertu ziren.

## Zuhaitz landatzeak Argatzoron

Urtero bezala eskolako haur guztiak Ar-

gatxorora joan ziren otsailaren 6an, pago landareak plantatzera. Urteak dira eskolako neska-mutikoak zuhaitzak landatzen dituztela, natura zaintzeko asmoarekin.



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317


## HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leiboak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abujardada' Muzicou  
Zuhar antz-ekoa Txapetatu

ZINTARRIAK  
ADOKINAK  
ZOLAK



## ALBERGIA JATETXEA

© 634179


ARANTZA

## XATURETXEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

## ESTHER ATEAK, C.B.



Zarandia 9,

☎ 627584 - LESAKA

☎ (943) 610319 - IRUN

- ➔ Parket flotantea
- ➔ Tarima
- ➔ Kortxoak
- ➔ Ate korrederoak dituzten armarioak
- ➔ Paretan sartzeko armarioak

## EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

**Frexkuena**  
zugandik  
hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264



# Inoiz baino inauteri alaitsu, umoretsu eta jendetsuagoak

Bertzalde, 'edertze aretoa' zabaldu berri du Linda Irazokik Etxexuria etxean

IXABEL ETA JOSUNE

Inauteriak pasa ondok betiko martxara itzuli gara, inauteriko astea arras mugitua izaten baita, nahiz eta jendea egun horretan gordea bezala egon. Aurtengo inauteriak bertze urteetan baino umoretsuagoak, alaitsuagoak eta jendetsuagoak izan dira. Jendea arras kontent dago, inoiz ez baita horrenbete giro ikusi hiru egunetan Ortziralean emakumeek kriston giroa jarri zuten, larunbatean jende pila bat moztu zen eta kanpoko jendea ere etorri zen. Igandean berriz, kanpoko jendea bertzerik ez zegoen. Desfilean ez zirudien horrenbete, bainan frontoneko



Edertasunerako aretoan hainbat tratamendu egin daitezke

Argazkia: Ixabel

ikuskitunera sartu eta, egia errateko, guttitan ikusi da hainbertzeko jendetza herri honetan. Heldu den urtekoak prestatzen hasi beharoko orain.

## 'Edertze aretoa' zabaldu da

Joan den astean edertze areto bat zabaldu dute. Etxexurian dago eta Linda Irazokik sunbeldarra izanen da estetizista.

Politagoak jartzeko egingen dituen tratamenduen artean honako hauek daude: ilekenteak argizari hotz edo beroaz, masaiak,

## ETB

Otsailaren 8an 85 sunbeldar joan ziren ETBra Goraintzi programa grabatzera. Joaterakoan arazoren bat izan bazuten ere, ederki pasatu zuten. Martxoaren lehendabiziko igandean emanen dute ETB-lean.

## Sagardotegia

Otsailaren 11n, 65 sunbeldar joan ziren autobusez sagardotegi batera. Arratseko 7,15etan ateri eta goizaldeko 4,30ak aldera itzuli ziren.

larru garbiketak, manikura, makilaiak, etabar...

Interesatua egonez gero, aitzinetik ordua eskatu behar da.



## AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tfnoa: 450028 • DONEZTEBE

## BELARRA Kafetegia

*Plater Konbinatuak*

Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • DONEZTEBE



## TELLETXEA MOBLEAK

### ZUREZKO PERFILAK

AZKENEAN, ATE-KORREDERAK  
ZURE LOGELAREN ESTILOAREKIN  
BATERATU AHAL IZANEN DITUZU  
AKABERAK ZURE GUSTORA EGINAK  
ZURAK BEREZKO DUEN DOTORETASUNA  
ZURE LOGELAREN ESTILORA  
EGOKITZEA ESKEINTZEN DIZUGU

**NOBEDA  
ESKUSIBOA**

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

**Doneztebe**

# 'Erreka'k antolatutako mendi ibilaldiak arrakastatsu dira

Iñauteriak otsailaren 23, 24, 25 eta 26an ospatuko dira

**TXEMA ETA KARMELO**

Erreka elkarreak hamabortzetik eta igandetan prestatzen dituen mendi ibilaldietan 100 pertsona inguruk parte hartu du aldi bakoitzean. Hurrengo ataraldia, otsailaren 19an Otsodontik Elizondora izanen da ibili beharrekoa, autobusez joan eta etorri Doneztebera. Izena emateko betiko tokian apunta daiteke, Anaiak-Titi bar tabernan alegia.

Otsailaren Sean Doneztebetik Arantzara joan ziren 90 lagun oinez eta aitzinekoan berriz, Belatetik Orokieta gainera, 110 lagun. Eguraldi ona izanez gero aukera ezin da galdu.

## Iñauteriak

Otsailaren 23, 24, 25 eta 26an izanen dira Donezteben eta ez aitzineko asteburuan azken alean iragartzen genuen bezala.

Ortzegunean afaria eginen da. Ortziralean berriz, baserrietan pus-



**Inguruko herrietakoak bezain famatuak ez badira ere, umore ona izanen da Iñauterietan**

Arg.: Artxiboa

ka biltzea eta larunbat arratsaldean ekitaldirik arrakastatsuenak, karruzen desfilea, hain zuzen ere. Igandeko bazkariarekin, adio eta heldu den urtera arte erranen diogu iñauteriei.

**Banaz bertze ehun lagun biltzen dira aldiro Errekak antolatutako mendi ateraldietan**

Argazkia: TXEMA



*ttipi-flash*

## ♦ Eskola publikorako

garraioa ordaintzeko 2,4 milioi pezetako dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura sailak. Diru hori 1994ko azken bi hilabetei dagokio eta garraio enpresentzat izanen da. Bertzalde, sail berak zenbait materiale eman du Irakasleen ikas-kuntza zentzurako.

**FUNERARIA ZERBITZUAK**  
**DONEZTEBEN**



**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua  
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik  
edozein herritara trasladoak

Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA



**SANTAMARIA**  
**Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

**IBARROLA**  
**HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA**

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

**Malerreka**

# Langarra Euskara taldeak fase berri bati ekinen dio

Nafarroako Bertsolari txapelketaren kanporaketa bat Donezteben egingen da martxoaren 12an

**TXEMA ALDABE**

Malerrekako Euskara Taldeak, Langarrak alegia, lan eta alor ezberdinak landuko dituzten azken bileran hartutako erabakiaren arabera.

Dinamizatzailerearen papera da hoietako bat, zenbait herritan (Sumbilla, Donamaria, Zubietan...) dinamika propioa duten taldeak edo azpitaldeak sortzen saiatuko delarik. Lan honi hasiera emateko, eskoletako gazteen artean lehiaketa bat antolatu nahi da eta herri ezberdinetan kanporaketak egingen dira.

Bertze lana, bazkiak edo sozioak lortzea izan da, jendearen nolabaiteko konpromisua ikusi eta taldea bera indartzeko. Honen berri eta bazkide nola egin daitekeen informazioa emanaz paperak banatuko dira Malerrekako etxeguzietan baina.

Aipatu behar da



Langarrak lokala izanzen duela maisuen etxeetako pisu bateko gela batean eta informazio nahi izanez gero deitu 450850ra.

Turismoaren alorra kontutan hartuz eta idazkietan euskararen erabileraren arabera, eskerrak eta salaketak publikoak ere egingen dira. Bertzalde, kultur ekitaldiak ere, ahal diren neurrian behin-behinean, egingen dira.

## Kintoen afaria

Urrotz, Donamaria eta Oitzko kintoezko urteroko afaria ospatu zuten. Guttitan gertatzen da hiru herrietako kintoezko elkartzea. Halere, ezker aldeko argazkian ikusten den bezala, hiru herri hauek 1958. urtean jaio-takoak giro ezin hobean eta umoretsu egin zuten urteroko afari hori. Datorren urtean ere guztiak biltzea espero dugu.

## Joare soinuekin batera joan dira Ituren eta Zubietako inauteriak



**Giltzaren bila**

Lehiaketa

Izen-Deiturak.....

Helbidea.....

Herria..... Tfnoa:.....

Giltza ..... orrialdean dago. Zebazki, zein tokitan? .....

Kupoi hau moztu eta Bera, Doneztebe, Leitza edo Lesakako EUSKADIKO KUTXAREN sukurtsaletan utzi lehenbailehen.

LEHIAKETA HONEN OINARRIAK 151. ALEKO AZKEN ORRIALDEAN AGERTU ZIREN

Hilabete honetako jabetxeak ZALAIN eta ESKISAROI

**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA



## ITUREN

**Iñauterietan zozketatutako musika katearen jabea ez da oraindik azaldu**

IBAN ISASI

Herria bere egoera normalera itzultzen ari da iñauterien ondotik. Besta eta umorearen ondotik, diru gorabeherak argitzeko tenorea ailegatu zen eta otsailaren 4an, kontuak egiteko egunean, Ibinza kultur taldeak antolatutako zozketan, musika-kate bat eta mendi bizikleta bat zozketatu ziren. Mendi bizikletaren zenbakia-  
ren jabea egun berean agertu zen eta Harriberriko Lazaro Erregerenari suertatu zaio, hain zuzen. Lehen saria zen musika minikatearen jabea ordea, oraindik ez da agertu. Zenbakia, 1.458a da. Ez bazaizue honetan tokatu, lasai eta ez bota boletoak oraindik, jabea ez bada agertzen hilabete baten buruan bertze sorteo bat eginen baita.

### Lapurreta Aurtizen

Duela ez denbora aunitz Iturengo dendan tabakoa ebatsi zutela erran baldin bage-nuen, oraingoan Aurtiz auzoko Tailerreakoei suertatu zaie ebasketa. Bitan jasan dituzte lapurretak azken aldi honetan: lehenengoan dendan sartu ziren eta bigarrenan berri-  
z, karretera ondoan egiten ari diren etxeko materiala ebatsi diete.

## Bertsolari txapelketaren kanporaketa martxoaren 12an Donezteben

Martxoaren 12an Nafarroako Bertsolari txapelketaren kanporaketa izanen da Doneztebeko Bordatxo

dantzalekuan. Goiz partean trikitilariak, bertsolariekin bazkaria eta saioa arratsaldeko 4,30etan izanen

da. Hemengo bi bertsolari onenak finalean egonen dira eta hurrengo lauek bertze aukera izanen dute.

*ttipi-flash*

❖ **Saldiasen** bertso afaria izanen da otsailaren 25ean Herriko Ostatuan. Joxe Lizaso eta Txomin Garmendia arituko dira.

**P.A.C.  
95**

## ESKA EZAZU "AZALERAK 1995" LAGUNTZA CAJA RURAL DE NAVARRAN



"Azalerak 1995" laguntza zerbitzuari eskusiban emana dagoen espezialista taldeari eta automatizatutako sistemari esker, Caja Rural de Navarrak zure eskaera aurkezteko modurik bizkor eta eraginkorra eskeintzen dizu.

**E**tor zaitetz Caja Rural de Navarrara eta laguntzarik onena aurkituko duzu.

"Azalerak 1995": nekazal esplotazio hauen jabeei zuzendutako laguntzak; zerealen laborantza, oleaginosak, proteaginosak, gari gogorrarendako suplementuak, lekadun aleak, bazkalekuak, haragitarako betabereak

(abeltzain dentsitate faktorearen kalkulua). Guzti hauek eskaera bakar bat aurkeztu behar dute '1995erako Lurgorri eta 1995erako uztarako ereintza Plangintza' rekin lagunduta.

**SISTEMA  
AUTOMATIZATUA  
DUEN ESKAERA  
ZERBITZU  
ESKLUSIBOA**



**CAJA RURAL DE NAVARRA**

**Goizueta**

## Dena prest Iñauteriak sekula baino hobekak izateko

Otsailaren 26tik 28ra ospatuko dira

ESTEBAN AROZENA

Iñauterien barrenean hain ohizko eta, aldi berean, ezinbestekoak diren astelehenekoak puska biltzea eta astearteko zagi-dantza badira ere protagonista nagusiak, hauen inguruan antolatzen diren ekintzak urtetik urtera pisu haundiagoa hartzen ari dira. Aurten ere, esate baterako, azpimarragarria da Donostiako tanborrada baten emanaldia eta Rosa Mari Olaizola eta Eli Salaberriaren trikitixa eta pandero eskolako ikasleen erakustaldia. Honetaz gain, astelehenean txaranga bat edukiko dugu gure artean, eta nola ez,



Ohitura zaharrak eta mozerro berriak: aurten ere bietatik izanen dugu iñauterietan

hiru egunetan arratsalde eta gauz herriko plazan dantzaldiak.

Egitaraua gehixea go zehaztuz esan, igande (26) arratsaldeko haurren zagi-dantzak hasiera emango diola aurtengo iñauteriei. 7etan lehen aipa-

tutako herriko trikitilarien emanaldia eta ondoren dantzaldia trikitilari bikote ospetsu batekin. Astelehenean baserrietako buelta egindakoan, 6,30ak aldera herriratuko omen dira mozerroak txararekin batera. Egun

honetako arratsaldeko eta gaueko dantzaldia Haritza taldearen esku egongo da.

Asteartean, zagi-dantza arratsaldeko 4,30etan aterako da, eta dantzaldiaren ardurara bezperako talde berriari egokituko zaio.

Hau da, gainera, aipatuta, 800.000 pezeta-ko aurrekontua duten iñauterien egitaraua. Badirudi iazko istilurik ez dela aurten errepikatuko eta, ondorioz, giro hobea nagusituko dela herri osoan zehar hiru egun hauetan.

**Areso**

## Elizak historia luzea du liburu batean ageri denez

Gaztelu baten hondakinetan altxatua dago eta bi aldiz erre dute

JUANA MARI SAIZAR

Liburu batean gure kulturaren zati bat irakurgai dago. Denok ezagutzen dugu eliza, baina oso gutxi dakite bere estiloaz edo barnean dauden irudietaz. Elizaren estiloa barrokoa omen da, oraingo eliza, aspaldiko gaztelu baten hondakinetan altxatzen da. Bi aldiz errea da, 1444 urtean gipuzkoarrak Gaztelaren kontrako gerran eta



1794an frantsesak Kobentzioko gerran. Kanpadorrea neogo-

tiko estilokoa da. Talla asko daude barnean, ia denak XVIII. mende-

**Historian barrena bi aldiz erre da Aresoko Eliza; 1444.an gipuzkoarrek eta 1794.an frantsesek**

Arg.: Juana Mari

koak. Zaharretakoa Santa Catalina eta M<sup>ñ</sup> Asuncion, XVII. men-

dekoak eta San Migela, bere hanketan sugea duela, XVI. mendekoa da. Ez da ezer geratzen erretablo nagusiaz eta Sagrario zaharretik. Zilargintzan ez du gauza askorik, baina oraindik gordetzen da XVI. mendeko kaliza bat. Lehenbiziko eliza zaharretik ponte harria gordetzen da.

**Gizarte laguntzailea** asteartero etorriko da 10,30etatik 12etara eta Osasun etxean izango du bulegoa.



# Arturo Elosegik zientzia arloko sari garrantzitsua irabazi du

“Ugal estrategiak: sexua joku ebolutiboan” lana zientifikoa izan arren edozeinentzat ulergarria da

JOSEBA AZPIROZ

Aurreko alean Mikel Olanok lortutako literatur sariaren berri ematen genuen eta oraingoan beste leitza batek zientziaren arloan eskuratutako sari baten berri emango dugu. Izan ere, Arturo Elosegik Irurtiak Elhuyar kultur elkarteak eta CAFek ematen duten Zientzi Dibulgaziorako saria eskuratu baitu animalien ugalketari buruzko liburu batekin.

Epaimahaiaren arabera, “Ugal-estrategiak: sexua joku ebolutiboan” liburua zientifikoa izan arren, edozeinentzat ulergarria da. Modu honetara, Arturok bere liburua argitaratua ikustez gain 600.000 pezeta-ko saria poltsikoratu du.

## ARTURO ELOSEGI, BIOLOGO ETA EKOLOGOA

Arturo Elosegik biologo eta ekologo da,



Familiako argazki honetan, eskuinaldetik bigarrena da Arturo Elosegik, kuadroan atorrarekin, CAF-Elhuyar Zientzi Dibulgaziorako saria irabazi duen leitza

bainan esan daiteke unibertsitatean adina Leitzeko mendietan landu duela bere karrera. Karrera bukatuz gero, Euskal Unibertsitateko irakaslea da Bilbon. Unibertsitateko Ikerketa laborategian ere egiten ditu bere lanak. Duela urte t'erdi doktoratu zen Elosegik, kalifikaziorik altuena, ‘cum laude’ alegia, lor-

tu zuelaril.

Bere zaletasun nagusia naturari buruzko diapositibak eta argazkiak egitea da eta bere kolekzioko lanak maiz azaltzen dira liburuetan. Bidai zientifikoko ugari egin ditu Kanada, Alaska, Eskandinavia, Kenia, Australia edo Polonia bezalako herrialdeak bisitatuz.

## Frontoiko tarifak

Pilotalekua erabilteko tarifak aldatzeko hasierako onespina eman du udalak. Orain erakusketa publikoa egingen da eta ondoren onartzen bada, 16 urtetik behar-koek 200 pezeta orduko ordainduko dute eta 16 urtetik gorakoek 300 pezeta orduko.

## ttipi-flash

### ❖ Bideo Lehiaketa

I. Laburmetrai lehiaketara lanak aurkezteko epea aldatu du Mikelats taldeak. Epea maiatzaren 19a bitarte zabalik izanen da eta sari banaketa maiatzaren 27an egingen da zineman.

### ❖ Kutxa berria

‘Caja de Ahorros Municipal de Pamplona’ delakoak bulego bat ireki behar du Leitza, Elbarren kaleko 37.ean.

### ❖ Danone-ko langileei elkartasuna

Udalak Ultzamako Danone enpresako langile guztiei bere elkartasuna adieraztea eta instituzio publikoei, gaur egun dauden lanpostu zuzen eta zeharkako guziekin lantegiaren jarraipena eskatu zieten.

**SAS KAITZ**  
fontanería  
calefacción

Empresa colaboradora de  
**REPSOL**  
AUTONO

**Era guzietako instalazioak:  
Etxekoak, Industrialak...**

Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

## ttipi-ttapa

6.000 harpidedun 20.000 irakurle

ttipi-ttaparekin zure publizitatea  
zonako sukalde-xoko guzitan izanen duzu

## Gida 95

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako  
PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herriko eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guzitan kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88



ttipi-ttapa

**Baztan**

# Arraiozko frontoia 45 milioitan egingen da

Hogei milioiko dirulaguntza agindua du Ongizate, Kirol eta Etxebizitzetarako sailak

JOSEBA IGARABIDE

Arraiozko herriak aspalditik egindako eskaera jkusirik, hau da, frontoi estali baten beharra, udalak pauso batzuk eman ditu. Horretarako, Nafarroako Gobernuak Ongizate, Kirol eta Etxebizitzetarako kontseilariarekin bildu dira. Nafarroako Gobernua 20 milioi pezetako subentzioa emanen luke, beti ere frontoiaren aurrekontuak 45.156.202 pezetak gainditzen ez baditu. Gainerakoa Baztango udalak ordaindu beharko luke.

Arraiozko alkateak errandakoaren arabe-berri, orain arte bere aldetik egindako gestioetan, aurrekontua 61 milioietara iris-ten omen da.

## Ur zikina Oronozen

Oronozko bizilagunak kexu daude, Xolborro iturritik hartzen duten ura batzuetan garbia eta bertzeetan zikina heldu baita Belateko tunelaren lanen ondorioz. Alkateak neurriak eskatu ditio Nafarroako Gobernua-ri eta alternatiba gisa, ur depositoa zisternaz bete edo 300 metrota-ri dagoen bertze iturri



Herri lurretan egindako plantazioak eta inbertsioen eragina ikusi asmoz etorri zen mendietako kontseilaria otsailaren 8an KARMELE

## Mendi kontseilariaren bisitaldia

Jose Cruz Perez Lapazaran Nafarroako nekazaritza, Abeltzantza eta Mendietarako kontseilaria otsailaren 8an Baztanen izan zen.

Mendi sailaren laguntzaz zuhaitzak landatu diren lurra bisitatu zituen, Aritzakun eta Bagordi aldean ibili zen. Iruritako Loizu

inguruan egin behar den hiltegiari buruz ere solastu zuen, Nafarroako Gobernuak %55a ordainduko duela erranez.

batetik ura garraiatzea proposatu zuen. Oraingo Nafarroako Gobernuak eman duen erantzuna, egunero uraren analisiak egingen dituela da.

### KIROL

### IHARDUERAK...

antolatzeke dirulaguntzak eskatzeko epea hilaren 28an bukatuko da. Kirol ekitaldi hauek aisialdia-

ri eskeinitakoak behar dute izan. Informazio gehiago Elizondoko kirol bulegoan.

### GURASO ESKOLA...

antolatu nahi dute Iruritan, seme-alaben heziketa lagundu eta garapen pertsonala bultzatzeko asmoarekin. Sikologoak, pedagogoak eta medikuak hartuko dute parte hitzaldietan.

### BAZTANDARREN BILTZARRAREN

Gazte sailak asanblada orokorra egin zuen 1995eko ekitaldiak aurreikusteko. Hiru hilabetekoak antolatuak dituzte eta logotipo lehiaketa bat egingen dute.

Bertzalde, 53 emakume afari batean elkartu ziren Azpilkuetan.

ttipi-flash

### Helduendako ikastaroak

Elizondoko Lanbide Eskolan hiru EPA ikastaro antolatu dira: soldadura elektrikoa, kon- tabilitatea eta marrazki teknikoaren or- denagailuz.

### Nafarroako Itzulia

Nafarroako 34. txir- rindula itzuliaren etapa bat Elizondon bukatuko da. Ho- rretarako 650.000 pezeta ordaindu du udalak.

### Antzanborda

auzoko urak bidera- tzeke memoria egi- nen du Esther Iturriak. Euriteen on- dorioz uholdeak izaten dira Elizon- doko auzo honetan.

### Plaza izendatu

Babes Ofizialeko etxebizitzaren artean dagoen plazari Maurizio eta Felix plaza izena emanen zaio, bi musikari hauen omenez.

### Elkartasuna aldizkaria

argitaratu ahal izateko 60.000 peze- tako dirulaguntza hartu du Arizkongo erretoreak.

### Iruritako

Francisco Santxo- tena, 50 urtekoa, larriki zauritua suertatu zen otsailaren 6an, arbola baten adarrak mozten ari zenean.

**ERRATZU OKINDEGIA**

zure eguneroko ogia

© 453168 - ERRATZU



**Pierresenea**

**OSTATU - JATETXEA**

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

**ARLA**  
**ARDOTEGIA**

Ardoak • likorrak • freskagarriak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

**Baztan**

# Asteburu honetan Zigako ñauteak


Haurren Orakundea ere ailegatu da Basaburuako herrietara

**PABLO MENDIBURU**  
 Ñautetako giroa pasatuta berri txarra izan zen Anizen, joan den astean Pello Iantzi gaztea hil baitzen.

Zigan ñauteak asteburu honetan ospatuko dira. Ortziralean, haurren Orakunde eguna izanen da, meza, etxetan barna ibilaldia, bazkaria, jokoak eta dantzaldia izanen direlarik. Ondotik gazteen afaria. Larunbatean, otorduetaz gain eskean ibiliko dira eta musika izanen da. Igandean azkenik, Zuraurren barna eskea, bazkaria eta musika Etxezurin.

Almandozen haurrek Orakunde eguna 23an ospatuko dute eta Berroeta eta Anizen 25ean, larunbatean.

**MUS TXAPELKETA**  
 Almandoeko Benito ostatuko mus txapelketa akitu da. Eusebio Mitxeo eta Antonio Fernandez izan dira txapeldunak eta Margarita eta Josefina Etxeberria bigarrenak.



**ORONOZKO BERTSOLARIA ESTATU BATUETAN**  
 Jesus Goñi oronoztarra, 1964an joan zen Ameriketara eta egun Renon bizi da. Garai batean arditan ibilia, orain konstrukzioean lan egiten du eta gezurra badirudi ere, bertsotan aritzen da Estatu Batuetako mendebaldeko euskal jaialdietan.

Argazkia: Euskaldunon Egunkaria

## Karrikako salmenta erregulatzeko ordenantza egitea erabaki du udalak

Udal idazkaritzaren idatzia ikusi ondotik, karrikako salmenta erregulatzeko ordenantza egitea erabaki du udalak.

Baztango merkataria kexu ziren beraien egoerarekin, "gero eta gehiago baitira kanpotik datozen saltzaileak". Hori dela eta, idatzi bat aurkeztu zu-

ten 50 sinadurarekin. Merkatarien erranetan "feria egunetan Elizondoko komertzioak sufritzen duen konpetentzia gehiegizkoa da, egun horietan kanpoko saltzaileak herriaz jabetzen baitira".

Dendari hauek, denbora batetik honat egiten hasi den merkaturia desagertaraztea eska-

tzen zuten "Beran egin duten bezala debekatuz edo tasak igoz eta baimenak hamabortz egunetik behin emanenez, Lesakan bezala".

Udalak ordenantza egitea erabaki du. Horretarako kontsumitzaileen eskubideak errespetatu eta konpetentzia librea izanen dela ziurtatuko da.

*ttipi-flash*

- ❖ **Elizondoko harpidedunei**  
 Zenbait etxetan al-dizkaria berandu banatzearen ardura Posta Zerbitzua-rena da eta ez TTI-PI-TTAParena.
- ❖ **Baztango liburutegia**  
 publikoa izan da be-ti eta ez udalarena aitzineko alean pa-ratu genuen beza-la. Orain 'A' kate-goria eskuratu du eta astean 30 orduz ireki beharrean 40 orduz irekiko da.
- ❖ **Korrika-9**  
 ekitaldien barnean rock kontzertua ospatuko da martxo-aren 11n (larunba-ta) gaueko 11etan Erratzuko fron-toian. Baldin Bada, Etsaiak, Patagonia eta Beltzez arituko dira bertan. Sarre-rak, aurrez 600 pe-zeta, takillan, 800.
- ❖ **Ikastolaren 25. urteurrena**  
 dela eta ihauteri-jantzien erakuske-ta burutzen ari da Arizkunenea Kul-tur Etxean. Otsai-laren 23a arte zaba-lik izanen da, arra-tsaldeko 6etatik 8etara.

**QSS** FOTOS EN 1 HORA

ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

LA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO Tel. 58 01 55

DONEZTEBE Tel. Fax. 45 08 25

FOTO TTPA

**IPINGI** ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

**INAUTERIETAKO TELAK:**  
*Mozorro eta disfrazak egiteko telak*

**MERKEALDIKO AZKEN AUKERAK:**  
*Aprobetxa ezazu akitu baino lehen*

**UDABERRIKO ARROPA**  
*Ekarri berriak, badago denetarik*

Sara

# Laborantza Ganbararako bozketak iragan dira

ELB (Euskal Laborarien Batasunak) sei urtetan 15tik 55 bozatarira iragan da Saran

MIXEL ETA JACQUELINE

Laborantza ganbararako hauteskondeak urtarrilaren 31n iragan dira. ELB sindikatak 1989ko marka 5 tiantoz gairatu du. Orain Euskal Herrian berdin gelditzen da, erdi eta erdi, FDSEA Frantzia mailako sindikatarekin. Bainan zorigaitzez, laborantzako ganbara hau departamentu osorako da eta hor ELB %20ra heltzen da. Halere, bi ordezkari dauzka. Jakin behar da ELB 1982an sortu zela eta hunek plazazten dituen ideiak gure herriari, lurrari finiki lotuak direla erran nahi baita: produkzio-nea zuzenki partitza, hemengo nekazaritza mota zaintzea, laguntza, Euskal Herrian



Ikastolako haurrek Zubietako ihauteriak bisitatu zituzten

Arg.: Mixel

egiten diren produktuei labelak ezarri. ELBkegin du bide, gure herriko emaitzak ikusiz:

	1989	1995
FDSEA	43	21
ELB	15	55

## Ihauteriak otsailaren 25 eta 26an

Jadanik aipatu dugun bezala, aurtengo ihauteriak otsailaren 25 eta 26an iraganen dira. Lehen egunean gazteek beren bisitak eginen dituzte auzo-erri (oinez edo zaldiz).

Igandez, Iletarik landa partehartzaileek herriko plaza alaituko dute usaian bezala. Herriko hiru eskoleri parte hartzea dei egina da. Zazpiak Bat taldea beti bezala horizanen da.

ttipi-flash

### Ixtripua

Urtarrilaren 31n Andoizen bordako Jan Pierre Tapia zuhaitz batetik erori eta bizkar hezurra ukiturik larriki kolpatua gelditu da. Bordeleko eritetxe batetara altxatua izan da.

### Adinekoen bazkaria

Otsailaren 4an Omordiako janlekuan 140 bat adineko biltzen ziren Herriko Etxeak gonbidatutako bazkari baten inguruan. Bazegoen umore, kantu eta dantza, nola ez! Koxe Larzabalek bere akordeoi-arekin eta Patziku Narbartek bere krixkitinekin gain gainetik alaiturik.


### Abisua

Bertsozaleen hitz ordua: Saran otsailaren 19an arratsaldeko 4etan bertso saioa Omordian.



KIWI BAZTAN

Frutondoak eta Landare Ornamentalen Zuzeneko Salmenta



MINDEGIA eta BULEGOAK

Sutegia Etxea  
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Faxa: (948) 581101



ARMUA  
Jatetxea

Zugarramurdiko karretera 3. Km

Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI

Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortziriak, Leitzaldea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lantegi guzti-guztiak bilduko dituen.
- ✓ Herrika eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin

Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

ttipi-ttapa

5.900 harpidedun  
20.000 irakurle

Zure klienteek  
irakurtzen dute  
Zure publizitatea  
ttipi-ttapan

Urdazubi

## Iñauteriak otsailaren 26, 27 eta 28an izanen ditugu

Atsulai dantza taldeko neska-mutikoeek Ainhoako ñauterietan parte hartu zuten

ALIZIA OLAIZOLA

Aurten ñauteriak beranduxeago ditugu, otsailaren 26tik 28ra ospatuko dira. Igan-dean, otsailak 26, Dan-tzarineako Bentetan eskea egingen da, denak mozorroturik eta Modesto akordeolaria-rekin batera. Arratsean afaria eta dantzaldia izanen dira Indianoa-baitan. Astelehenean, otsailak 27, eskean ibi-liko dira gazte koadri-lak Leorlas, Alkerdi eta Larrainta auzoetan bar-na. Ilunabarrean haur mozorrodunen desfi-lea burutuko da eta



Igandean Dantzarineako Bentetako ibilbidea egingen dute gazteek

opari aunitz ere iza- haundienen desfilea eta otsailak 28, azken egu- nen dituzte. Afaria eta dantzaldia. Asteartea, nean Iribere, Landibar,

Tejeria eta herriko ibil-bidea egingen dute gaz-teek. Afaria eta dan-tzaldiarekin finituko da aurtengoz.

### Atsulaikoak Ainhoako ñauterietan

Otsailaren 5ean, Ainhoako ñauterietan, Ainhoa, Zugarramurdi eta Urdazubiko gazte-ekin osatutako Atsulai dantza taldeak igande arratsaldean dantzatu zuen Ainhoako karri-kak korrituz, bertze ikusikizun gehiagoren konpainian. Egun po-lita izan zen.

Zugarramurdi


## Urdazubi eta Zugarramurdiko lezeak bidexka batez elkartu dira

Ez du galtzerik, pottoka baten irudiaz markatua baita bidea

KORO ETA MARGARI

Bi udalak eta Nafa-rrako Gobenuaren ar-tean ordainduta edeki da Zugarramurdi eta Urdazubiko lezeak el-kartzen dituen bidex-ka. Sarako lezeetara doaiena bezala, hau ere oinez ibiltzeko presta-tua da, bide meharra, zubi ttikiak eta eska-lerak baititu.

Denetara, goiti-be-hiti hiru kilometro izan-nen ditu: Lezeetan ha-si eta herria gurutzatzen du plazatik pastu gabe Sueldegia, Sagardia eta Martineko on-dotik pasatuz; gero



Zugarramurdiko -argazkian- eta Urdazubiko lezeak bidexka baten bidez elkartu dira

Bizkarrondoko borda Alkerdiko auzoan sar- Esteban kapera alde- ondokit segitzen du eta tzen da. Hemen San tik Etxelekua eta Be-

rraberriko bidea har-tzen du, Berraberriko leze aurrehistoriko fa-matuen ondotik pasatuz (pasatu bakarrik, debekatua da sartzea) eta Zelaitako gurutze-an agertuz Leorlas au-zoko bidera sartzen da xuxen.

### SANEAMENDU LANAK...

egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Lanak 11,4 milioiko aurre-kontua du eta Aritzon-doa, Etxenike, Sansi-nea, lezeak eta fronto-neko ur zikinak bortz kolektore ttikitari bil-duko dira.

**EZKONTZAK**


**Miguel Maritorea Irureta** eta **M<sup>a</sup> Dolores Hualde Dendarieta**, Berroeta eta Elizondokoa, urtarrilaren 28an.  
**Javier Sancho Marinas** eta **M<sup>a</sup> Aranzazu Zubeldia Otxandorena**, Tolosa eta Andoaingoa, Beran, urtarrilaren 28an.

**JAIOTZAK**

**Markel Barriola Hernandorena**, Leitzakoa, urtarrilaren 27an.  
**Maialen Mitxeo Oteiza**, Gaztelukoa, urtarrilaren 27an.  
**Dario Trantxe Urtasun**, Elizondokoa, urtarrilaren 22an.  
**Gorka Elizetxe Elizagoien**, Amaiurkoa, urtarrilaren 28an.  
**Joseba Mortalena Sarratea**, Elizondokoa, urtarrilaren 30an.  
**Mikel Aldazabal Zamarreño**, Berakoa, urtarrilaren 28an.  
**Javier Pikabea Molinero**, Berakoa, urtarrilaren 29an.

**HERIOTZAK**

**Fermin Ariztegi Migelena**, Urrotzkoa, otsailaren 3an, 82 urte.  
**Vicente Etxandi Migeltorena**, Elizondokoa, urtarrilaren 23an, 86 urte.  
**Narciso Ultra de la Cruz**, Elizondon, urtarrilaren 28an, 91 urte.  
**Julia Gutierrez Arin**, Elizondon, otsailaren 2an, 87 urte.  
**Idefonso Otxoa de Zabalegi Olo**, Elizondon, otsailaren 5an, 79 urte.  
**Elise Roth**, Sarakoa, urtarrilaren 27an, 75 urte.  
**Juan Petrirena Gelbenzu**, Sunbillakoa, otsailaren 2an, 78 urte.  
**Maria Ozkariz Pikabea**, Etxalarren, urtarrilaren 28an, 73 urte.  
**Cristina Iturria Zubieta**, Etxalarren, otsailaren 2an, 69 urte.  
**Ignazio Ozkariz Bruneton**, Etxalarren, otsailaren 5ean, 77 urte.



**zimeldi**



- ▶ Paretako armairuak aukera ugariko akaberetan.
- ▶ Armairu barneak.
- ▶ Armairu aitzinaldeak (frenteak).
- ▶ Gela erdibitzeko ate korrederak.
- ▶ Apalak.
- ▶ Liburuendako apalategiak.

**ESKATU AURREKONTUA  
 KONPROMISORIK GABE**

**Zimeldi • Tfnoa: 38 70 17 • ETXALAR**



## BEHARREZKO TELEFONOAK



<b>OS Nafarroa eta</b>	
Urgentziak.....	088/061
<b>Basun Zentruak</b>	
Elizondo.....	452367 / 580235
Doneztebe.....	450300
Esaka.....	637428 / 637336
Leizua.....	510248 / 510573
<b>Nafarroako Ospitaleak</b>	
Nafarroako Ospitalea.....	102100
<b>Sko Urgentzi</b>	
Leizua.....	246750
<b>Argen del Camino</b>	
Leizua.....	109400
Leizua.....	226404
<b>Ipuzkoako Ospitaleak</b>	
Ipuzko ospitalea.....	614600
Ipuzko ospitalea.....	460299
Ipuzko ospitalea.....	453800
<b>Medikuntza Zentroak</b>	
Leizua.....	630264 / 621106
<b>Medikuntza Zentroak</b>	
Leizua.....	450242 / 450342
<b>Bestak</b>	
Esaka.....	(943) 464622
Doneztebe.....	171717
<b>Bestak</b>	
Doneztebe.....	637404
Elizondo.....	580924
Esaka.....	637404
<b>Bestak</b>	
Leizua.....	592255
<b>Bestak</b>	
Esaka.....	631150
Leizua.....	580129
Leizua.....	515018
<b>Bestak</b>	
Leizua.....	450335 / 450336

# Nafarroako Haur kantari txapelketan izen emateko epea bukatzean

Kanporaketa bat Donezteben egingen da martxoaren 25ean

Nafarroako Haur Kantari txapelketan parte hartu nahi duenak otsailaren 24a baino lehen eman beharko du izena. Inskripzioak hiru telefono hauetan egingen ahal dira: 184764 (Antonio Sagastibelza), 141812 (Eugenio Arraiza) edo 170151 (Euskalerría Irratia).

Lehendabiziko kanporaketa Lekunberriko frontoian burutuko da martxoaren 4an, Goizueta, Leizua, Areso eta Larraun aldeko haurren partehartzearekin. Iruñean izanen da bigarren kanporaketa martxoaren 11n. Bertan, Iruñerria, Lizarralde, Tafalla eta Tuterakoharrekin arituko dira kantari. Hirugarren kanporaketa Doneztebeko Bordatxo dantzalekuean egingen da martxoaren 25an, arratsaldeko 4,30etan. Egun horretan Malerreka, Bortzirriak, Bertizarana eta Baztango partaideek abestuko dute. Finala Iruñeko Gaiarre antzokian izanen da apirilaren 9an, goizeko 11etatik aitzinera.

Txapelketa hau eus-



Goizuetako neskatxa hauek bezala, aurtengo Haur Kantari txapelketan 400 bat neska-mutikok parte hartzea espero da

Arg.: D. Noticias

kal kantagintza zabaldu eta haurren gaitasuna pizteko helburuarekin antolatzen du Euskal Kantuzaleen Elkarteak.

### BALDINTZAK

Txapelketan parte hartzeko aski da edozein eskola-ikastoletako OHoko ikaslea izatea eta noski, euskaraz kantatzea. Partaideek banaka, binaka edo taldeka (15 kidekoak gehienez) aurkezten ahal dira. Kantari ba-

koitzak kantu bakarra abesten ahal du eta ikastetxe bakoitzetik gehienez lau ordezkari aurkeztu daitezke. Kanta zahar eta berriak abesten ahal dira, modu herrikoi batean beti ere eta ez goi mailako polifoniaz. Edozein musika laguntza eramán daitezke, baina gehienez kantua baloratuko da.

### SARIAK

Txapelketaren sariak kategoria eta modalitate bakoitzeko le-

henengo bien artean banatuko dira. Nafarroako lau ordezkari heldu den ekainean Gernikan ospatuko den Euskal Herriko saio nagusira joaneko dira. Horietatik hiru epaimahaiak aukeratuko ditu eta bertzean en-tzuleek.

Puntuak banatzera-ko orduan epaimahaiak doinua, hitzak, ahotsa, trebetasuna, interpretazioa eta kantuaren ekarpena hartuko ditu kontuan, batez ere.

## Gida 95



ttipi-ttapa

Baztan, Bortzirriak, Leizualdea, Malerreka eta Sarako PROFESIONAL, KOMERTZIO ETA LANTEGI guztien

## Gida Komertziala

- ✓ Zonako etxe guzti-guztietan sartuko den Gida Komertziala
- ✓ Profesional, komertzio eta lanteri guzti-guztiak bilduko dituena.
- ✓ Herriko eta aktibitateen arabera klasifikatuak.
- ✓ Urte osoan eta momentu guztian kontsultatuko dena.
- ✓ Zure anuntzioa sartzeko aukera eta tarifa ezberdinekin



Eska ezazu informazioa konpromisorik gabe • ☎ 63 11 88

## DATUAK

❖ Vidal Ibarra 28 urteko sunbildarra da, Ambrosiobaita etxekoa.

❖ Lera-zakur laisterketetan parte hartzen du aurten, nahiz eta iaz entrenatzen hasi. Lau zakur gazte ditu eta Koikili Fagoaga lesakarraren zakurrekin ere aritzen da konpetiziotan.

❖ Mendian eta skietan ibiltzea gustatzen zaio eta zakurrak ere gustoko dituenek, lera-zakur laisterketetan proba egitea erabaki zuen.

❖ Pirena eta gisako probatan parte hartzea gustatuko litzaioke, baina horretarako denbora behar omen da, 18 egunez dena utzi behar baita.

TESTUA:

AITOR AROZENA

Vidal IBARRA:

# «Denborarekin amistadea sortzen da zakur eta gidariaren artean»

**DUELA URTE PARE BAT ARTE INGU-RU HONETAN EZE-ZAGUNA ZEN LERA-ZAKURREN KIROL HAU. ORAIN GERO ETA GEHIAGO IKUSTEN DA. ZERGATIK ARI DA HORRENBER-TZE ZABALTZEN?**

Bueno, bat ikusten duzu, probak gero eta gehiago dira, zakurrak gero eta gehiago ikusten dituzu eta kuriosidadez sartzen zara. Probatu eta gero gustora segitzen duzu.

**NOLAKO HARREMANA SORTZEN DA GIDARIA ETA ZAKURRAREN ARTEAN?**

Zakurren laguna izatera ailegatzen zara. Amistade horretara ailegatzeko denbora behar da, zakurrak ezagutzeko, beraiekin ibili, egon... Gidari lana egiten duen zakurrarekin denbora gehixea go egoten zara. Zenbat eta gehiago egon hobea, konpenetratio hobea lortzen da.

**ZEIN MODALITETAN ARITZEN ZARATE?**

Normalean sei zakurrekin aritzen naiz, B-1 kategoria deitzen dena. Espainiako txapelketara aldiz, lau zakurrekin joan naiz (C-1). Otxagabian pro-



ba egin nuen lau zakurrekin eta seigarrena iritsi nintzen. Ibilbideak ezberdinak izaten dira, Otxagabiakoan bortz kilometro t'erdia egin behar ziren, Lesaka eta Sunbilla artekoan hamabortz...

**KIROL HAU PRAK-**

**TIKATZEA GARESTIA DA?**

Nahiko garestia ateratzen da, bai. Hemen entrenatzeko trizikloa behar duzu, elurretarako lera... Pentsu ona eman behar diezu zakurrei. Elurretarako arropa eta bidaiak ere ordaindu behar dituzu. Diruz laguntzen duten sponsorrak baditugu, Boch pentsuak eta Astore, bainan beti dirua galtzen ateratzen zara. Afizio garestia xamarra da, baina eskiatzera jo-

aten bazara ere, hori ez duzu deusekin kubritzen ahal.

**ZEIN PROBATAN HARTU DUZU PARTE AURTEN?**

Otxagabia, Albelda (Lleida), Lesaka, Señorío de Zuasti, Barañain eta Anoetako probatan aritu naiz. Momentu honetan nere zakurrak Pirena proban parte hartzen ari dira Zestoako mutil batekin eta gero Espainiako txapelketan eta Sorian atera nahi dut.

» Afizio garestia da lera zakurrena: Entrenatzeko trizikloa, elurretarako lera, pentsu ona eman behar diezu zakurrei, elurretarako arropa eta bidaiak ordaindu behar dituzu»

# Euskadiko txapelketetan buru-belarri sartuak daude eskualdeko sokatira taldeak

Otsailaren 4an, Elizondon egindako kanporaketan momentu onean daudela erakutsi zuten Amaiurko tiralariak

Otsailaren 4an jokatzen zen Elizondon Euskadiko goma gaineko sokatira txapelketaren kanporaketa bat, 600 kilotik behitiko kategorian azkena, hain zuzen. Jende gutti agertu zen tiraldiak ikustera. Telebistan, pilota txapelketako partidua eta Donostiako Sei Orduak ikusgai izatea izanen zuen eraginik, seguraski.

Bertan, Amaiurko taldeak, txapelduna zergatik den erakutsiz, tiraldi guziak irabazi zituen. Berekin batera, lehen multzoan Barrundiak eta bigarrenen Gaztedi eta Torrekolandak eskuratu zuten finalerako txartela. Finala, otsailaren 19an ospatuko da Gasteizen eta amaiurterekin batera, beraz, Barrundia, Gaztedi, Torre-



Epailiek Abadiñoko kanporaketan egindako lanarekin ez dago conforme Lesakako taldea

kolanda eta Gasteizko bertze kanporaketan sailkatutako Urrestilla eta Lesakako Beti Gazte arituko dira.

## KANPORAKETA ETA HASERREA 560 KILOTAN

Aitzineko asteburuan Lesakako taldea kanporatua izan zen Abadiñon, 560 kilotik behitiko kategorian. Urrestillako taldeari bi tiraldiak irabazi ondok, nahikoa zuten Gaztedi taldeari tiraldi bat irabaztea, baina epailiek hiru falta adierazi zieten minutu erdi baten eta kanporatuak izan ziren. Beti Gaztekoak beraien protesta agertu dute eta taldearen arduradunen erranetan "beti kiroltasunez borrokatu dugu, baina Abadiñon arbitroen lana negargarria izan zela uste dugu".

## ttipi-flash

❖ **Mikel Saralegi** harrijasotzaile leizarrak ezin izan zuen munduko errekor berria ezarri. Otsailaren 2an, Donostiako Sei Orduen barrenean egin zuen proba, baina bi saioen ondok ez zuen 321 kiloko harria bizkarrean berdintzerik izan.

❖ **Hirugarren partidua** behar izan dute Retegi-Errandonea eta Salaberria-Belokik finalera nor pasatuko den erabakitzeko. Zerbait aipatzekotan, bertzeak guttietsi gabe, Salaberria goizuetarrak bigarren partiduan egindako lana.

## Beti Gazteko xake taldeak Euskadiko txapelketan parte hartu du

Lesakako Beti Gazte elkarteko xake edo ajedrez taldeak Euskadiko txapelketan parte hartu du, Nafarroako talde bakarra izanik. Urtarrilaren 21ean bukatu zen ligaxka honetan Manuel Reyes, Bixente Igarzabal, Juan Felix Egues, Juanjo Guerrero, Miguel Ariztegi eta Txarli Aiala lesakarrek eta Miguel Perez beratarrak parte hartu dute.

Balantze bat egite-rako orduan, kontuan

hartu behar da lehen-dabiziko aldia dela gisa honetako txapelketa batean parte hartu dutela. Hau desabantaila haundia izan da Beti Gazteko taldeki-deentzat eta ez dute partida bakar bat ere irabazterik izan. Halere, pozik ageri dira Euskadiko txapelketak eman dien esperientziagatik. Gainera, partida guziak galdu badi-tuzte ere, zenbaitetan maila haundia erakutsi dute. Hara nola, Ma-

nuel Reyesek Luis Olaizola donostiarraren kontra jokatutako partida, Bixente Igarzabalek Patxi Gallego hondarribitarraren kontra jokatutakoa edo Juan Felix Eguesek Asier Rufino irundar-raren kontra jokatutakoa. Azken honetan izan zen irabazteko aukerarik argiena, Egues irabazteko posizioaren jabe baitzen, baina den-bora arazoak zirela medio ezin izan zuen ego-era hori probextu.

## Hamabostaldiko Jokaldiak



**Amaiurko** sokatira taldea.

Gaur egun Euskadiko txapeldunak dira 600 kilotan eta orain arte ikusitakoaren arabera, txapela bigarren aldiz janzteko aukera izan dezakete igandean. Elizondoko kanporaketan tiraldi guziak aisa irabazi zituzten.



**Euskadiko** sokatira txapelketako epailiek.

Haserre agertu dira Lesakako sokatira taldekoak Abadiñon egindako tiraldien ondok. Minutu erdi bateguz hiru falta adierazi zieten. Lesakarrek kiroltasun haundia erakutsia dute eta bada sinitzeko arrazoirik.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## BERTSOAK

SARA

### ► Otsailaren 19an.

Arratsaldeko 4etan, Omordiako salan Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Maialen Lujanbio, Xanpun, Ezponda eta Bittor Elizagoien. Gai emaitza: Michel Itzaina.

## SALDIAS

### ► Otsailaren 25an.

bertso afaria Herriko Ostatuan. Joxe Lizaso eta Txomin Garmendia.

## KONTZERTUAK

### HAZPARNE

### ► Otsailaren 19an.

Arratsaldeko 4etan, 'III. Rock txapelketa'. Zezette Epouse, Beltzez, Ezbaikorrek, Nihil, Lau Behi, Kapar hosto, Folck Amnesia eta Betagarri.

### ARRUTA

### ► Otsailaren 25an.

gaueko 11etan, frontoian, Sorotan Bele eta Sustraiak. Arruta, Donapaleu ondoan.

## KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

### LEITZA

Otsailaren 21an, 10etatik 1etara Udaletxean egonen dira 'Iratxe' kontsumitzaileen elkarteak.

### ELIZONDO

Otsailaren 23an, 10etatik 1etara Balleko Etxean egonen dira 'Iratxe' kontsumitzaileen elkarteak.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



## Zerri-azpizuna gaztain saltsan

### Osagaiak

• Bi zerri azpizun • 4 xerra urdaiazpiko • Tipula bat • BSei baratzuri hortz • Tomate bat • 2 piper berde • ardo xuria • irina • gaztain-krema • litro erdi bat haragi salda •

### Prestatzeko manera

Solomilloari nerbioak kendu eta ongi garbitu ondotik zartagi ba-


tean gorritzen jarri. Barazki guztiak xehetu eta azpizunari erantsi, salda behar duenean, ardo xuri pixka bat bota eta ondotik irina. Azpizunek gustoa hartu dutenean ateri. Saltsari haragi salda gehitu eta 30 minutu egosten utzi. Labeontzi batean azpizunak paratuko ditugu gainean urdaiazpiko xerrak dituztelarik. Salda egin



Agustin GARTZIA  
Kattu Jatetxea  
•LESAKA•

denean txinotik pasa eta gainean bota. Sartu labean 10 minutuz 180ºtan. Labetik ateri ondotik gaztain-krema saltsarekin nahasi. Presentatzeko sagar-erreak eta gaztain pikor batzuk erabili.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 8.000 pzta.
- Zerri gizona (95-100): 180 pzta/kilo
- Zerramak: 110 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
  - Idixkoak: Pzta/kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 610 |
| 1.koa ..... | 590 |
| 2.koa ..... | 560 |

- Urruxak: Pzta/kg. Kanal
- |             |     |
|-------------|-----|
| Extra ..... | 630 |
| 1.koa ..... | 600 |
| 2.koa ..... | 570 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- Aretze ttikiak (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 38.000 Pzta.  
**Mestizoak:** urruxak 40-45.000 eta idixkoak 55.000 Pzta.
- Behi zaharrak:**  
 Behi nabar gizona: 440 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 500 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA  
MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...



### ❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- Bertako sagarrondoak 950.
- Udareondoa 950 pzta.
- Gereziendoa 1.050 pzta.
- Aranondoa 1.050 pzta.
- Muxika 870 pzta.



### ❖ BARAZKIAK ❖

- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.




## ZUBIRIA MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE

Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)

Faxa: 948-581274



### Etxebizitzen alokairuak



1985. urtetik gaurkotu gabeko kontratuak gaurkotu egin behar dira "Etxebizitzetako alokairuen legea" k dioenez

seme-alabak adinaren arabera eskubide ezberdinak dauzkate: 25 urte izanez gero bi urterako subrogazioa eta gazteagoak badira, 25 urte izan arte.

- %65eko elbarritasun maila dutenek, pisua bereganatzeko aukera dute.
- Zerbait alokatzerakoan ordaintzen den fidantza hila-bete batekoa izanen da.

*Alokatutako  
etxebizitza salgai  
jartzen baldin bada,  
erosteko orduan  
maizterrak  
lehentasuna du.*

• *Hondasun Mugiezinen Gai*neko zerga, jabeak maizterri ordainarazi ahal izanen dio.

• Alokaturako etxebizitza nagusiak salgai jartzen badi, maizterrak du **erosteko lehentasuna**.

• Ordaintzen ez duen maizterri botatzeko erreztasun gehiago izanen du jabeak.

• Alokairuen gaurkotzea da arazo gehien sortu duen puntu bat. 1985. urtearen ondotik gaurkotu gabeko kontratu guztiak gaurkotuko dira. Eraberean, urteko salarioa eta etxean bizi direnen arabera ere gaurkotuko dira.

MIKEL BEZUNARTEA  
(IRATXE) NAFARROAKO  
KONTSUMITZAILEEN ELKARTEA

## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

### LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
  - Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## ZINEA

### DONEZTEBE

- ▷ **Otsailak 18-19.** 'El último gran héroe'.
- ▷ **Otsailak 25-26.** 'Entre dos mujeres'.

## LEITZA

- ▷ **Otsailak 17.19.** 'El especialista'.
- ▷ **Otsailak 19.** 'Las aventuras de Huckleberry Finn'.

## HITZALDIAK

### LESAKA

- ▷ **Otsailak 16an.** Arratseko 7etan Andoni EGANA bertsoaritzaz solasean arituko da Matxinbeltzengan. Ondotik, bere diska berria aurkeztuko du.

## DIAPOSITIBAK

### LESAKA

- ▷ **Otsailaren 23an.** 7etan, 'Euskal Inauteriak' diapositiba emanaldia, Josu Txuekaren eskutik.

## GUARDIAKO BOTIKAK

- ▷ **Otsailaren 13tik 19ra** Bera, Nabarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.
- ▷ **Otsailaren 20tik 26ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.
- ▷ **Otsailaren 27tik martxoaren 5ra** Arantza, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

## ETXEBIZITZAK

**LESACA.** Baserria salgai, 60.000 m<sup>2</sup>ko terrenoarekin. Terrenorik gabe ere saltzen da. ☎ 637008.

**Baserri** baten bila gabiltza alokatzeko. ☎ 393067.

**LEGASA.** 90 m<sup>2</sup>ko pisu mobilizatua salgai, tximinia eta kalefakzioarekin. 45 m<sup>2</sup>ko ganbara eta beheko solairuan 14 m<sup>2</sup>ko trasteroa. ☎ 306502 (Lurdes).

**LEGASA.** 95 m<sup>2</sup>ko pisu mobilizatua salgai, haritz eta gaztainezko zurajea. ☎ 306502 (Lurdes).

**BAZTAN-BIDASOA** aldean borda edo baserria erosten dut. ☎ 306502.

**ELIZONDO.** Pisua alokatzetan dut. Hilabeteko 35.000 pezetatan. ☎ 306502.

**LEITZA.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Lau logela, jangela, sukaldea eta bainua. ☎ 306502.

**LEITZA.** Pisu bat salgai. 4. asentsorearekin. Oso ona. 9.500.000 pztza. ☎ 610942.

**LEITZA.** Pisu bat erosiko nuke lehen edo bigarren

solairuan. 5.500.000 pztza arte ordainduko nuke. ☎ 610942.

## DENETARIK

**Kartelak,** afitxak, Bisita txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego orduetan.

**Haritz amerikano eta gaztain plantak** salgai. ☎ 450888 (eguerdi eta arratsetan).

**Kontsola** salgai, Megadrive E markakoa eta MegaCD zazpi jokuekin. Gutti erabilia. 45.000 pezetatan. ☎ 510180.

**Akumuladoreak** salgai, 2.500 Kwkoak, bi Aegon markakoak. Modu onean. ☎ 610904.

**Hiru mendi bizikleta** salgai. Berri berriak, zozketa batean tokatuak. Prezio ezin hobean. ☎ 627514.

**Intxaurlandareak** salgai. ☎ 510227.

**Estudio** amueblatua eta eguzkitsua salgai, hondartzara ondoan, Torrevieja aldean. 2.500.000 pezeta.

Partikularra. ☎ 631339.

## AZIENDAK

**Collie** arrazako zakurkume beltzak salgai. ☎ 451500.

**Sei txakur** erregalatzeko ditut (artzai zakur eta eheziko zakurraren arteko kruzua). ☎ 393067.

**7 urteko behor** mantsoa salgai. Karroan nahiz azpian ibiltzen dakiena. ☎ 634098 (Arantza).

**Bi ahariko,** urte betekoak salgai. Mutur gorriak dira. ☎ 451696.

**Grifon** arrazako bi zakurkume, hiru hilabetekoak, salgai. ☎ 627608.

**Bracco aleman** arrazako zakurra salgai. Uso edo oilagor ehezirako espeziala. 15.000 pztza. ☎ 306502.

**Artzai zakurkumeak hilabete batekoak** salgai. Oso politak. ☎ 504492.

## LANA

**Kartelak,** afitxak, Bisita txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188. Bulego

orduetan.

**Emakumea** haurrak zaintzeko prest. ☎ 450010 (9etatik 11etara).

**Irakasle tituluduna eta EGArekin** urte osoan Beran zein Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839.

**Neska** bat externa moduan garbiketa lanak edo haurrak zaintzeko prest. ☎ 637734-627515 (Lurdes).

## AGURRAK

**Bidaneren** partez Berako mutil guziei muxu bat.

**Berako** Ainhoa Almandoz-eri: Nahiz eta zure 20. urtebetetzea pasa, zoriondu nahi zaitugu. Datorren igandean betiko tokian itxarongo zaitut. T.A.R.A.O.

**Etxalarko** Ana M<sup>o</sup> Arrosarenari: Zorionak 19. urtebetetzean. Kontuz anonimoekin, batzutan bueltatzen ahal baitira. A.R.A.P.O.

**Etxalarko** Maitane Zelaietari: zorionak bere 16.

urtebetetzean Etxalarko bere lehengusu eta lehengusinen partez.

**Elizondoko** Loinaz Azurmendiri: zorionak bere aitona, amona eta osabaren partetik. Egun espeziala pasatu dezala.

**Leitzako** Aingeruri: Oso haserre ikusi zintudan Bordatxon. Han esan nizun txorakeriarengatik bada, espero dut nere erruz besteekin ez haserretzea, ez dakite ezer eta. Mese-dez, barka nazazu.

**Etxalarko** Jose Ramon eta Joseparenako: Pasajes alderdian ihauteri on batzuk pasa beren 3. adinean, beren seme Jose Mari baino dantzari hobek izateko. Lesakar baten partetik.

**Narbarteko** Tom Cruiseri: eskerrik asko bi alditan engainatzeagatik. Zuk dakizun neska bat.

**Berako** Lurdes Agirrereren partez muxu bat Unai Zelaietari.

**Vanessa** eta Ainhoaren partez, muxu eder bat Koro Astondoari.

## 40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,  
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,  
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegia bat  
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,  
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,  
aseguro etxe bat, ileapaindegia mixto bat, drogeria bat,  
bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak,  
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak,  
etxe saltzaile bat...**

**Denetarik gauzarik hoberenak.  
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.**

Centro Comercial

LUIS  
MARIANO  
Irun

# P.A.C.

## Laguntza

*Eskaera*  
Azalerak 1995



## Nekazariak Abeltzainak

# 95 urtea

Zatoz Kutxako zure bulegora 95eko  
P.A.C. Laguntza Eskaera tramitatzera.  
Iaz Kutxaren bitartez egin baldin bazenuen  
eskaera hau, aurtan NIF-a ekarri eta  
ereintzatan egin dituzun aldaketen berri  
ematearekin nahikoa izanen duzu, eta guk,  
momentu-berean prestatuko dugu Eskaera.  
Aurrera zaitetz bertze urte batez.  
Zatoz Kutxara.

**Eska itzazu  
gure bulegoen  
bitartez**

Nafarroako Gobernuarekin lankidetzan

**GANI NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**



# KATTU

OSTATU - JATETXEA  
LESAKA

## IHAUTERIETAKO MENUA

### 1. HASIERAKOAK

- Traka Entsalada
  - Fritoa
  - Baratruri eta ganba nahaskia
  - Bakailau piperr beteak
- ARDOA eta OGIA

### 2. BIGARRENAK

- (Aukeran)
- Eskalopea
  - Terri solomiloa saltzan
  - Legatza: Romana erara edo saltzan.

### 3. POSTREAK

- (Aukeran)
- Gazta tarta
  - Flana natarekin
  - Izozkia

**1.800 pzta.**

Karta eta koadrila afarieiz gain bankete eta komunioak ere zerbitzatzen ditugu.  
Zuk erraiguzu zure asmoa eta guk egingo dizugu modua

**UMOREZ BLAI, IHAUTERIAK ALAI**

Arretxea 22 • Tel.: 62 75 73, Faxa: 62 75 53 • LESAKA



# ETXANIZ

Erakustokia:

Juan Arana 1 • Tfnoa eta Faxa: 943-611767

Biltegia:

Juan Arana 3 • IRUN

**OTSAILEKO  
MERKEALDIK**

**MOBLE  
ISPILU eta  
BAINURAKO  
OSAGARRIETAN**

**DUTXA eta  
BAINURAKO  
MANPARETAN  
SEKULAKO  
AUKERA**

Paratzea prezioan  
sartua dago

